



DISKOA

# Batu eta hunkitzeko gaitasuna



2012ko abenduaren 25ean eman zuen aurreneko kontzertua The Potes talde arrasatearrak.

## IKER BARANDIARAN

**B**adira talde gutxi beraien herrian profetak direnak; eta The Potes bada horietako bat. Bestelako bariarik hasi zen taldea, ia txantxa moduan: ondo pasatzeko asmotan lagun talde bat elkartu eta banjoaren aukerak probatzearekin batera The Pogues zein traza horretako folk talde ganberroen kantak bertsionatzeari ekin zioten. Emaizta jendaurrean plazaratzen hasi eta harrera oso beroa jaso zuten sorterrian, Arrasate aldean batez ere. Tamalez, baina, epe laburrera taldeak Bergarako Gaztetxean egin zuen kontzertuan RIPeko gitarra jotzaile eta The Poteseko banjo jotzaile Jul Bolinaga bihotzekoak jota hil zen. Betirako orbaina.

Gertaera latz horrek kolokan jarri zuen taldearen jarraipena, baina Julek

berak nahiko lukeen moduan, denborarekin aurrera egitea erabaki zuten eta jende gaztea batuta poliki-poliki kanta propioak idazteari ekin diote berriro, Irlandako folkaren kutsua badutenak, jakina, baina rockeroagoak eta gitarreroak diren bestelakoak ere sortuz. Folkaren eta rockaren arteko orekan daude orain, eta emaitza hurbila da, lagun artekotasuna deitzen duena, erraz abestekoa eta energia zein melodia biak bere gain hartzen dituen. Taldea hazi egin da, zalantzarik gabe.

*Oihu bat* folk-pop-rocka da, oso itsaskorra eta barnerakoia; *Sorry I'm drunk* folk-punka, The Solanosen lapur eskola bereko triki bihurria duena; *Zure babesa* taldekideen iturri di-



## AMETSAK DIRA EGI ERABAT BETE AURRETIK THE POTES

MAUKA, 2018

ren Pogues eta Clashen ezkontza ezin hobea; *Mom & dad* koadrilan abesteko folk balada goxoa; *Until the last one is coming* punk-rock melodiko bizi-bizia; *Revolution* folk-punk itsaskor bezain gitarreroa; *Beldurrik ez* Strummer eta McGowanen denborapasa; *Another song* eta *Get your rights* biak 77ko punkean oinarritutako rock oso melodikoa, batez ere hit-a den azken hori. *Zure etsai zure lagun min* hillbillytik duen folk aparta; eta *Lorolo* lotsarik gabeko izena duen taldearen aurkezpen parranderoa.

Horrez gain, taldearen bi klasiko berreskuratutakoak dituzte: *La sombra del banjo* balada ederra; eta oroimen onenak altxatutako *Jul never go* folk hun-kigarria. ●